

Euskalgintzan dabiltzan erakundeen arteko koordinazioa bultzatzeko lanak aipatu ondoren (helburuak, lorpen eta oztopoak, egungo beharrak), prozesu honetan aurre egiteko behar eta arrazoiak ematera goaz. Lau dira, funtsean, koordinazio horretarako funtsezko baldintzak: 1. Abiapuntuak eta amankomuneko gutxieneko helburuak; 2. Elkarrekiko onespena eta zabaltasuna; 3. Erakunde publikoekiko autonomia; 4. Erakunde politiko-sozialekiko independentzia. Koordinazioaren helburuak 11 puntutan adierazi dira, honako gaiak buruzkoak: euskararen normalkuntzarako plangintza, euskararen aldeko talde eta elkarten arteko zerbitzu amankomunak eta elkarlana; elkarrekin jokatu beharra bai gizartean, bai erakunde politiko eta sozialen eta erakunde publikoen aurrean ere. Euskalgintzaren koordinazioa hainbat mailatako eta antolakuntza-mota anitzetako prozesua bezala hartu behar dugu. Oraingoz, koordinazioa iraunkorra izan dadin proposatzen da, konfederazioa iritsi gabe, eta horretarako zerbitzu egokiak sortuz: norabide horretan berehala eman beharreko urratsak azaltzen dira.

EUSKARAREN ALDEKO GIZARTE MUGIMENDUA (EGM): ZEREGINA ETA ARTIKULAZIOA

Paulo Agirrebaltzategi
EKB-ko lehendakaria

SARRERA

Hasteko, esan beharra daukagu guztiz interesgarri ezezik, larri ere iruditzen zaigula datozen bi egunotan aztertuko dugun gaia, EKBtik begiraturata. Bi aldetatik da larria: a) Berez guztiz **garrantzizkoa** delako euskararen berreskurapen-prozesuari begira; b) **Lehenbailehen** egin beharrekoa delako, oraintxe hain zuzen ere, euskalduntze-prozesuak aurrera-urrats kualitatiboa eskatzen duen honetan.

Esan beharrik ez, EKBrentzat gai zentrala dela hau, bere izatearen eta lanaren xedea ere hortxe jokutzen direlako. Ezaguna da euskalgintzako talde, elkarte eta erakunde herritarren koordinakundetzat definitu izan dela beti bere burua EKBk: «EKBk ez du besteen artean erakunde berri bat izan nahi, eta bai guztien koordinaziorako zerbitzu bat», zioen bere aurkezpenean.

Hasiera-hasieratik hartu du funtsezkotzat koordinazio hori. Orain dela 12 urte pasatxo sortu zen EKB. Bere lehen agiria («Euskararen normalkuntzaren

aldeko agiria») honela itxi zuen orduan: «Euskal Herri osoari eta herritar guztiei egiten diegu, bada, deia, norberaren ekintza zintzoaz eta jokabide zuzenaz gain, euskararen eta euskal kulturaren aldeko indar guztien elkartasuna eta koordinazioa lor ditzagun, Euskararen eta Euskal Kulturaren normalkuntzaren bideari ekiteko eta eusteko» (1983-03-12).

Handik urtebetera, eta hain zuzen UEUren markoan egindako bere bilera nagusiaren ondoren, beste dokumentu bat argitaratu zuen «Euskal Kulturaren Batzarrearen manifestua» izenekoa; honako hau zioen 6. puntuak: «Euskararen normalkuntza eta berreskurapen osoa bideratzeko eta tinko aurrera bultzatzeko, herriaren jaberazpenarekin batera, horren mobilizazioa behar-beharrezkoa ikusten dugu; baina guztien funtsean dago, kulturgintzan diharduten talde, elkarte eta erakunde herritarren koordinazioa» (1984, uztaila).

Koordinazio (edota «konfederazio») gisa definitu izan du bere burua EKBk. Orain dela 10 urte pasatxo argitaratu zuen EKBk bere lehen azterketa orokor oinarritzkoa: *Euskararen Plangintzarako Oinarriak* (Jakin 34, 1985, monografikoa). Honako aipuak atera genitzake hartatik: «Euskal kulturaren diharduten sail ezberdinetako talde eta elkarte herritarren topagune eta elkargunea izan nahi du EKBk, guztien koordinaziorako zerbitzu gisa» (16. or.). Eta, hain zuzen ere, koordinazio nazionaltzat definitu izan du EKBk bere burua; baina funtsezko bi koordinazio-ardatzetan oinarrituta: 1. Kultur sailletako koordinazioan («alorrezkoan»), eta 2. Herri eta auzoetako koordinazioan («lurraldekoan»).

Lehendik ziharduten euskalgintzako talde, elkarte eta erakunde herritarren arteko koordinazioaren bide historikoan hasi zen EKB ibiltzen; ez gorabeherarik eta zailtasunik gabe, 12 urteko bidea egin ondoren, guztiz garrantzizko irizten dio orain denon artean egindako bidea aztertzeari eta aurrerakoa argitzeari.

EGINDAKO BIDEA

Azken 30 urteei begiratuko diegu atzera, hamabost urteko bi alditan banaturik. Euskalgintzako eta euskararen aldeko talde eta elkarten historia oso aberatsa izan zen lehen 15 urteetan: Unibertsitateetako kultur mintegiak, herrietako taldeak, kantarien elkarteak, antzerkigileen elkarteak, idazleen elkarteak, UEU, etab. Dena dela, euskalgintzako indar sozialen koordinazioan aspaldiko urteotan egindako bideari begira, **Ikastolen** mugimendua eta horien arteko organizazioa aipatuz hasi behar dela uste dut. Zalantzarik gabe funtsezkoa eta guztiz garrantzizkoa izan zen hori urte luze eta zailetan. Eta Ikastolekin batera, **AEK**ren garrantzia funtsezkoa

«Euskalgintzako indar sozialen koordinazioan aspaldiko urteotan egindako bideari begira, **Ikastolen** mugimendua eta horien arteko organizazioa aipatuz hasi behar dela uste dut»

«Ikastolekin batera, AEKren garrantzia funtsezkoa izan zen euskalgintzako mugimendu osoa suspertzeko eta zabaltzeko. Bi koordinakunde edo erakundeok, Euskal Herri osoaren mailakook, sailetakook izanik ere, eragin handia izan dute mugimendu osoan»

izan zen euskalgintzako mugimendu osoa suspertzeko eta zabaltzeko. Bi koordinakunde edo erakundeok, Euskal Herri osoaren mailakook, sailetakook izanik ere, eragin handia izan dute mugimendu osoan. Orain dela 15 urte sortu zen, hain zuzen, **EHE**, ez sail jakin baten barruan, euskararen aldeko borroka sail eta eremu guztietan aurrera eramateko elkarte gisa baizik.

Bitartean, euskalgintzako sektore ezberdinetan sortuz eta finkatuz zihoa-zen hainbat talde eta erakunde, sarritan bakoitza bere lanari eta sailari oso lotua. Euskararen berreskurapen osorako ikuspegi eta plangintza orokorraren premia, ordea, larria zen. Testuinguru horretan eratu zen, hain zuzen ere, EKB: kultur eta lur-eremu ezberdinetako talde, elkarte eta erakundeen koordinaziorako, plangintza orokorrari begira. Testuinguru horixe eta kezka horietxek formulatu zituen bere «*Euskararen Plangintzarako Oinarriak*» liburuan, duela 10 urte argitaratu zen hartan.

Urte berean sortu zen AED ere, beste koordinazio-ildo garrantzizkoa bul-tzatuko zuena: Herrietako euskara-elkarteena, alegia. Gerora hainbat elkar-te eratu dira. EKB eta herrietako elkarteak osagarritzat eta bateratzekotzat hartu izan ditugu EKBren aldetik; areago, EKBren oinarritzko asmoan eta etengabeko ahaleginean egon da herri-mailako koordinazioa (herrietako EKBak); formula ezberdina izan da herri-elkarteena, eta zalantzarik gabe EKBren formulak baino arrakasta handiagoa izan du herri askotan.

Euskalgintzako gizarte-mugimenduan bestelako erakunde asko ere sortu eta indartu eta finkatu da bereziki azken hamabost urteotan: horietako zenbait lehenagotik ari ziren lanean noski. Enpresa gisa eraturiko erakun-deak (Elhuyar, UZEL, Argia, etab., etab.) eta profesio-elkarte gisa eraturiko erakundeak (idazleen elkarte, itzultzaileen elkarte, aktoreen elkarte, etab. etab.) ari naiz hemen aipatzen. Erakunde horiek batzuetan oso lotu-ta daude euskalgintzako gizarte-mugimenduari, eta kontuan hartzeokak dira hemengo gure gaiari dagokionez.

Euskalgintzaren alorreko organizazio sozialean, hiru erakunde-mota be-reiz genitzake, beraz:

1. Organizazio tekniko-enpresarialak
2. Organizazio profesional-sindikalak.
3. Organizazio herritar-militanteak

EKBk argi dauka ez duela, bere aldetik, hasieran ipinitako helburu hura osorik lortu. Horrexegatik, eta benetan kezkatuta euskalgintzako gizarte-

mugimendua sakabanatuegia zebilelako, orain dela hiru urte pasatxo batzarre nazional irekia eratu zuen «Euskararen gizarte-mugimenduaren koordinazioaren estrategia-ardatza eta berregituraketa» izenpean, eztabaida zabala irekitzeko denen artean eta «Euskal Kulturaren Konfederakunde» zabalera iristeko. Batzarrearen eta ondorengo harreman zabalaren bitartez koordinazioaren eskasaz eta hori zabalatzeko eta indartzeko oztopoez bizikiago jabetu ahal izan ginen, baina laburra izan zen orduan egin ahal izan genuen aurrera-urratsa. Horretan jarraitzen dugu funtsean, nahiz eta herrietako elkarrekin aldetik beren arteko koordinaziorako urrats zenbait egin den berriki - ez dagokit niri horretaz hitz egitea-. Gogoan edukitzekoa da, baita ere, Iparraldean sortu berria den «Euskal Konfederakunde».

Koordinazio zabalaren premia, maila guztietakoaz, gero eta jabetuago gaudela uste dut, gehienok behintzat. Baina gertatzez, EKBren ikuspegitik, euskalgintzaren mundu soziala hain aberatsa izanik, talde, elkarte eta erakundetan, horren koordinaziorik eza handiegia da, eta ez dugu lortu euskararen berreskurapenak eskatzen duen gizarte-mugimenduari funtsezko trinkotasunik ematea eta hainbat gauzatarako beharrezkoa den plataforma benetan zabala eratzea.

Arrazoiak ugariak eta ezberdinak dira, zalantzarik gabe. Ez gara hemen horiek sakontzen hasiko; baina horietako batzuk jaulki nahi genituzke guztion gogoetarako eta eztabaidarako. (Bi egun hauetan horiek bilatzeko aukera izango ahal dugu, aurrera begira bide berriak urratu nahi baldin baditugu).

- Politika orokorra eta gatazka politikoak nagusitu izana gure gizartean, hizkuntza-kulturari buruzko arazoaren autonomia gehiegi baldintzatuz.
- EHren zatiketa juridikoa eta administratiboa, euskararen berreskurapen-arazoaren eta gizarte-mugimenduaren ikuspegi orokorra baldintzatu duena.
- Erakunde publikoen politika uzkurra eta batzuetan oztopatzailea euskararen aldeko gizarte-mugimenduari.
- Marko legalaren balioztapen ezberdina gizarte-mugimenduaren barruan, ez bakarrik balioztapen teorikoa, baita praktikoa ere.
- Euskararen aldeko gizarte-mugimenduari buruzko eginkizunari eta eraketari buruzko ikuspegi ezberdinak, eta sarritan banatzaileak.
- Erakunde publikoekiko harremanei eta lankidetzari buruzko irizpide ezberdinak.
- EHIEren jokabidea: ikastolen mugimendua izanik euskalgintzaren

«Euskararen berreskurapen osorako ikuspegi eta plangintza orokorraren premia, orde, larria zen. Testuinguru horretan eratu zen, hain zuzen ere, EKB»

«Ez dugu lortu
euskararen
berreskurapenak
eskatzen duen gizarte-
mugimenduari fun-
tsezko trinkotasunik
ematea eta hainbat
gauzatarako
beharrezkoa den plata-
forma benetan zabala
eratzea»

erreferentzia eta eragile nagusietakoa, jokabide sektorialista erabili du sarritan Elkarteak.

AURRERA-URRATSA: EGM-REN KOORDINAZIOA

Euskararen normalkuntz plangintzak eta euskararen berreskurapen osoaren bideak aurrerako urrats kualitatiboki berri egitea eskatzen du une honetan: horixe uste du EKBk eta horixe aldarrikatu izan du azken hilabeteotan; ideia nagusi horretxan inguruan egin ditu hainbat elkarrizketa alderdi politikoekin eta sindikatuekin. Urrats berria eskatzen du euskararen berreskurapen-prozesuak, azken urteotan izan dituen gorabeherak ikusita.

Aurrera-urrats kualitatibo horren plan guztia dago zehaztu beharrean; hemen ez dugu hori egingo: EKBk txosten osoa prestatua du erakunde publikoei, alderdi politikoei, sindikatuei eta herritar guztiei irailetik aurrera aurkeztuko diena; bertan sailez sail ditu landuak proposamen guztiz konkretuak, aurrera-urrats hori gorpuzteko.

Hiru aldetatik da berrikusi beharrekoa orain arteko bidea eta egin beharrekoa urrats berri kualitatiboa:

1. Plangintza berria, alor guztietako euskararen ezagutzari eta *erabile-rari* begira (biak batean hartuta): Administrazio publikoa (funtzionarioak eta politikariak), irakaskuntza (Unibertsitatea), lan-mundua, komunikabideak, gizarte zerbitzuak, kultur produkzioa eta kontsumoa, etab.
2. Erakunde publikoen arteko «ekintza-batasuna» hizkuntz politikari dagokionez: EA Eren maila ezberdinetako erakundeen arteko artikulazioa eta Euskal Herriko hiru zati administratiboen arteko koordinazio estua.
3. Euskalgintzako gizarte-mugimendua suspertzea eta zabaltzea eta horren benetako protagonismoa euskararen berreskurapen-mugimenduan: horretarako da horren koordinazio berria.

Hemen hirugarren puntua aztertzea dagokigu bereziki. Euskalgintza garai oso garrantzizkoan -larrian- dago, hain zuzen ere, mugimendu herritarrari dagokionez: beraren onarpen publikoari eta beraren protagonismoari dagokienez. Azken urteotako zailtasun ezberdinak gaintuz, *jauzi kualitatiboa* egiteko unean gaudela esan daiteke, euskararen berreskurapen osorako plangintza orokorrari bultzada berria emateko.

Hiru ildo nagusi hauetara zehatz genezake urrats edo jauzi kualitatibo hori:

1. Euskararen berreskurapenerako gizarte-mugimenduaren funtsezkotasuna eta protagonismoa onartzea; horren ondorioetako bat zera izango da: horien azpiegiturari eusteko diru-laguntza publikoa ipintzea.
2. Gizarte-mugimenduaren zabaltzea eta trinkotzea, talde, elkarte erakunde sozialen koordinaziorako forma berrien bidez hori indartuz
3. Erakunde sozialen -oro har, gizarte-mugimenduaren- eta erakunde publikoen arteko komunikazioa eta elkarlan berria eratzea. Elkarlanaren baldintzak, formak, metodoak eta ekintza konkretuak definitu behar dira; badirudi horiek neurri batez elkarlanaren dinamikan definitu ahal izango direla.

EGM-A ETA HIZKUNTZ ELKARTEA

Euskalgintzako gizarte-mugimenduaren premia, funtsezkotasuna eta protagonismoa inork ez du teoriarik ukatzen une honetan, euskararen berreskurapenari begira. -Duela bi urte azaldua dut EHUko udako ikastaroan «Euskararen aldeko gizarte-mugimenduaren zeregina etorkizunean» izeneko hitzaldia: Horrelako gizarte-mugimenduaren izaera berezia, horren helburua, horren testuingurua herrigintzaren barruan, horren eraketa (barne-artikulazioa eta kanpo-eragina), gizarte-mugimenduaren lekua plangintza orokorraren barruan, euskararen berreskurapenerako gizarte-mugimenduaren etorkizuna (baldintzak, funtzioak, barne-antolamendua, erakunde publikoekiko harremanak, etab.). Hango hainbat ideia berritzearekin batera, EKBko idazkaritzarekin eta hainbat lagunekin batera landu ditugu hemen go proposamenak.

Hizkuntz berreskurapenaren aldeko gizarte-mugimendua eta hizkuntz elkarteak ez dira gauza bera, baina gizarte-mugimendua hizkuntz elkartean oinarritzen da: *mugimenduaren abiaburua eta helburua da hizkuntz elkar-tea*. Hizkuntz elkartearen zerbitzuan dago hizkuntzaren aldeko gizarte-mugimendua. Hizkuntz elkartearen **trinkotasuna** eskatzen du gizarte-mugimenduak, baina aldi berean, horixe trinkotzea eta zabaltzea du bere helburua.

Batetik, ez luke zentzurik euskararen aldeko gizarte-mugimenduak, aurretik ez balego nolabaiteko komunitate euskaldunik. Euskalgintzan eta euskararen alde lanean dihardutenen mugimendua da euskararen aldeko gizarte-mugimendua. Euskararen berreskurapenerako herritarren ekimean eta horien ekintza banako nahiz taldekako eta kolektiboan oinarritzen da euskararen berreskurapenerako gizarte-mugimendua.

«Urrats berria eskatzen du euskararen berreskurapen-prozesuak, azken urteotan izan dituen gorabeherak ikusita»

«Hizkuntz berreskurapenaren aldeko gizarte-mugimendua eta hizkuntz elkarte ez dira gauza bera, baina gizarte-mugimendua hizkuntz elkartean oinarritzen da»

Bestetik, euskararen aldeko gizarte-mugimenduak eragile behar du izan: hizkuntz elkarte du helburu, hau da, elkarte hori zabaltzea eta sendotzea. Horregatik, *kompaktazioarekin* (trinkotzearekin) batera beharrezkoa du *inpaktazioa*. Gizarte-mugimendua ezin daiteke testimonialismo hutsean gera, ezta protesta hutsean eta erresistentzia soilean ere: behar ditu egin urrats konkretuak, hizkuntz elkarte bultzatzeko eta zabaltzeko.

Horretarako eragin politikoa ere lortu behar du: hau da, erabaki politikoak eta praktika politikoa egiten den lekuetan eragin behar du, proposamen konkretuak eramanez eta horiek onartaraziz. «Inpaktazioa» ez du hizkuntz elkartean bakarrik lortu behar; horretarako «inpaktatu» egin behar du —eragin— boterea eta agintea dutenengan: indar soziala dutenengan eta botere politikoa dutenengan, alegia. Eragin "politikoa" esan nahi ez baduzue, esan ezazue "praktikoa"; dena dela, funtsezko puntua da hori, gero gizarte-mugimenduaren koordinazioari buruz hitz egingo dugunerako ere.

ORGANIZAZIOA ETA KOORDINAZIOA: BALDINTZAK

Euskararen aldeko gizarte-mugimendua ez da ezer abstrakturik. Kultur sail ezberdinetako, herrietako eta eskualdeetako talde, elkarte eta erakundeetan gauzatzen da aurrenik. Euskararen berreskurapenerako gizarte-mugimendua euskalgintzan diharduten talde, elkarte, erakunde sozialetan osatzen eta gorpuzten da. Horiek izan daitezke kultur sailetan dihardutenak nahiz sektore sozial eta barruti geografiko ezberdinetan dihardutenak. —Aipatuak ditugu lehen hiru motatako euskalgintzako erakundeak—.

Euskararen berreskurapenerako plangintzak eta politikak sailen artekoa eta globala izan behar du, benetan eraginkorra izango bada. Horren euskarri izango den gizarte-mugimenduak ere orokorra izan behar du, euskal elkarte osoa besarkatuko duena, eskualde eta herrialde bakoitzeko egoera soziolinguistiko ezberdinak kontuan edukiz. Baina sailean saileko eta lekuan lekuko *koordinazio* eta *artikulazio* bizian gauzatu behar du gizarte-mugimendu horrek.

Euskararen aldeko gizarte-mugimenduko talde, elkarte eta erakundeen arteko koordinazioak, benetan gauzatuko baldin bada, bere baldintzak eskatzen ditu horien aldetik; honako hauek dira funtsezkoenak:

1. Gutxieneko abiaburuak eta helburuak

Edonolako koordinaziok gutxieneko abiaburuak eta helburu batzuk ezarri behar ditu, noski: Euskararen berreskurapen osoari buruzko eta koordinakundeari berari buruzko abiaburuak eta helburuak. —Horiek

definitzea batzorde zabalaren egitekoa da—.

2. *Onarpena eta zabaltasuna barnera begira*

- Talde, elkarte eta erakunde bakoitzak bere izaera, eraketa eta funtzioa definitu behar ditu. Hori eginda elkar onartzea eta batak bestea errespetatzea eta balioztatzea da funtsezko baldintza.

- Zalantzarik ez dago euskararen aldeko gizarte-mugimenduak zabala izan behar duela, eta horren barruan eratzten diren ideologia eta antolakuntza ezberdinetako elkarteek eta erakundeek behar dutela beren lekua eta eragina eduki: gutxieneko baldintza batzuen barruan, guztiek behar dute beren lekua koordinazioan.

3. *Autonomia erakunde publikoei begira*

- Euskararen berreskurapenaren alde zinez dihardutenen erakunde publikoen eta euskalgintzako erakunde herritarren artean ez dago berez dikotomiarik. Alde batekoek eta bestekoek elkarren lekua eta egin-kizuna onartu behar dute. Areago, elkarrekiko etengabeko elkarriketa eta elkarlana bideratzeko urratsak beharrezkoak dira bi aldeetatik.

- Bi aldeetako erakundeen arteko harremanak dialektikoa behar du izan, ikuspegi organizista baztertuz. (Horregatik «artikulazioa» kontzeptua ez da egokia bi aldeetakoeren arteko harremana adierazteko).

4. *Independentzia erakunde politiko-sozialei begira*

Euskararen aldeko gizarte-mugimenduaren koordinakundeak bere independentzia behar du edonolako erakunde politiko eta sozialei begira. Horrek ez du esan nahi euskalgintzaren apolitizismo soila, euskararen berreskurapena arazo politiko ere badelako, eta baldintza politikoak, juridikoak eta administratiboak ere badituelako, eta herri-gintza osoaren dinamikan kokatzen delako.

COORDINAZIOA: ZERTARAKO ETA NOLA

Gizarte-mugimenduko talde, elkarte eta erakunde sozialen harreman onak eta lankidetzak maila ezberdinak eduki ditzakete: 1. Behereneko izango litzateke beraien artean konkurrentzia kaltegarritan ez sartzea, elkar ez trabatuz nolabait; 2. Beraien artean komunikazio iraunkorra antolatzea, bakoitzaren programen eta ekintzen berri jakiteko; 3. Informazioaz gain horien arteko lankidetzak antolatzea, nahiz eta puntuala izan; 4. Programen, ekintzen eta lanen koordinazio iraunkorra edukitzea, horretarako batzorderen bat antolatuz edo; 5. Elkarrekin zerbitzuak eta benetako lanplangintza antolatzeko koordinakunde iraunkorra eratzea, horretarako beharrezkoak diren organoak antolatuz; 6. Benetako gain-erakundea ins-

«Euskararen aldeko gizarte-mugimenduak eragile behar du izan: hizkuntz elkarteak du helburu, hau da, elkarte hori zabaltzea eta sendotzea. Horregatik, konpaktazioarekin (trinkotzearekin) batera beharrezkoa du inpaktazioa»

«Euskararen berreskurapenerako plangintzak eta politikak sailen artekoa eta globala izan behar du, benetan eraginkorra izango bada. Horren euskarri izango den gizarte-mugimenduak ere orokorra izan behar du, euskal elkarte osoa besarkatuko duena, eskualde eta herrialde bakoitzeko egoera soziolinguistikoa ezberdinak kontuan edukiz»

tituzionaltzea, konfederazio gisakoa edo, etengabeko elkarlan koordinatua bideratzeko.

Hemen bosgarren mailakoaz egingo dugu hitz, bereziki; baina jakinez, koordinakunde iraunkor horrek ere forma ezberdinak har ditzakeela.

ZERTARAKO KOORDINAZIOA

Hamar puntutara bildu ditugu euskalgintzako gizarte mugimendua osotzen duten talde, elkarte eta erakunde sozialen arteko koordinazioaren xedeak:

Plangintza orokorrerako oinarria

Euskararen gizarte-mugimenduaren koordinazioaren eginkizun funtsezkoetako bat euskararen normalkuntzarako erakunde publikoek landu eta bete behar duten plangintzari begira plataforma sozial izatea da: plangintzaren egitean bertan parte hartzeko, hori betearazteko, eta horren burutzean euskarri sozial izateko.

Bestalde, gizarte-mugimenduak ere bere autonomian bere plangintza egin behar du, ez erakunde publikoen aurrez aurre, baina bai berari dagozkion eginkizunak arrazionaltasunez eta eraginkortasunez betetzeko; horretarako helburuak eta helpideak ondo markatuz, emaitzen kontrola eraman, etab.

Analisi —eta eztabaida— markoa

Euskararen normalkuntzarako plangintzari buruzko eta euskararen berreskurapenaren prozesuari buruzko azterketak eta analisiak egiteko elkar-gunea izan behar du koordinazio orokorrak; gainera, euskararen gizarte-mugimenduak, oro har, eta euskalgintzan diharduten talde, elkarte eta erakunde sozial guztiek bereziki, dituzten lan-ildo orokorrak elkarren artean eztabaidatzeko markoa izan behar du.

Euskalgintzako hutsuneak eta erremedioak

Euskararen kontrako erasoan aurreko erantzun bateratua artikulatzeko ezezik, euskararen berreskurapen osorako bidean dauden hutsuneak detektatzea eta horiek konpontzeko bideak jartzea dagokio koordinakundeari, aurrerako urrats orokorrak proposatuz. Erakunde bakoitzak ikusiko du gero ildo horiek bere egiten dituen.

Erakunde publikoen eta sozialen aurreko solaskidetza eta ordezkari-tza

Euskalgintzako talde ezberdinen arteko harremanak lantzea da beste egiteetako bat, Euskararen aldeko mugimendu sozialaren solaskidetza osatzeko erakunde publiko, alderdi politiko, sindikatu eta gizarteko gainerako indar sozialen aurrean (mundu ekonomikoa, gizarte-zerbitzuak, kultur produkzioaren alorrekoak).

Talde, elkarte eta erakundeen arteko zubigintza

Euskalgintzaren barnean dauden gatazkak konpontzeko zubiarena (ez arbitroarena) egitea dagokio koordinakundeari, beharrezkoa denean. Horrelako hainbat gatazka izan da euskalgintzako mugimenduaren barruan; batzuetan erakunde publikoetatik eraginda.

Kultur sail bakoitzeko elkarlana

Sail berean ari direnen elkarte edo erakundeen arteko elkarlana bultzatzea da beste eginkizunetako bat: adibidez, euskalduntze-alfabetatzearen, irakaskuntzaren, unibertsitatearen, komunikabideen, administrazioaren alorrean; eta baita sail ezberdinetakoen artean ere: esate baterako, administrazioaren, euskalduntze-alfabetatzearen eta irakaskuntzaren artekoa (transmisio kanpainetarako, euskalduntze-alfabetatzea eta lan mundua alor ekonomikoaren euskalduntzerako, etab.). Eta bultzatzearekin batera, horretarako bitartekoak bilatzea: hau da, giza baliabideak (arduradunak), diru baliabideak eta azpiegiturazkoak (lokalak, teknologia, ...).

Herrietako eta kultur sailtako euskara-elkarteak bultzatzea

Herri mailan lanean ari diren elkarteak sortzearen, zabalitzearen eta koordinatzearen aldeko prozesua bultzatu eta lagundu behar du, horien lanaren zerbitzurako informazio eta aholku teknikoa bideratuz. Era berean, kultur sailtako (edota profesioetako) euskara-elkarteak eta horien arteko koordinazio oinarritzkoa bultzatu eta lagundu behar ditu EGMk.

Talde, elkarte eta erakundeentzako zerbitzuak

Euskalgintzako gizarte-mugimenduak, oro har, behar dituen zerbitzuak antolatzea dagokio koordinakunde orokorrari. Hona hemen horietako adibide batzuk, besterik gabe aipatzeko edo gogoratzeko esanda:

«Gizarte-mugimenduko talde, elkarte eta erakunde sozialen harreman onak eta lankidetzak maila ezberdinak eduki ditzakete»

**«Euskararen gizarte-
mugimenduaren
koordinazioaren
eginkizun fun-
tsezkoetako bat
euskararen
normalkuntzarako
erakunde publikoek
landu eta bete behar
duten plangintzari
begira plataforma
sozial izatea da»**

- Euskararen eta euskal kulturaren dokumentazio eta prentsa-zerbitzua.
- Kulturazko eta euskararen aldeko ekintza konkretuetarako laguntza teknikoa.
- Aholkularitza juridikoa euskararen inguruko arazoetarako.
- Plangintza-zerbitzua: herri mailako lanaren kontseilari eta berreuskalduntze-prozesu, bat aurrera eraman nahi duen edozeinentzako lagungarri.
- Heziketa: Soziolinguistikaren alorrekoa bereziki, gizarte-mugimenduan dihardutenentzat.
- Soziolinguistikako azterketa eta materiala lantzea eta zabaltzea: aldizkaria, liburuak eta bestelakoak.
- Prentsa-bulegoa: prentsa bulego propiorik izaterik ez duten euskalgintzako taldeentzat.
- Euskararen egoeraren eta dinamikaren azterketa sistematikoak lantzeko zerbitzua: erabileraren neurketa (kalean, instituzioetan, komunikabideetan, politikoak...), euskararen aurrekontuak eta laguntza publikoak, euskararen egoera-dinamiken adierazgarrien analisi: erroldako ezagutzadatuak, motibazioak, herri-mugimenduaren osasuna (kideak, mobilizazioak, eragin soziala, ekimena, etab.), euskarazko irakaskuntzaren bilakera, euskalduntze-alfabetatzeko matrikulen eta arrakasta-mailaren eboluzioa, funtzionarien eta politikarien hizkuntz eskabideek eta horien aplikazioa, etab.
- Beste hizkuntza gutxituen ezagutza zabaltzea eta horien aldeko mugimendu sozialekiko komunikazioa. Euskararen inguruko mugimendu soziala beste herrietan ezagutaraztea.

Ekintza bateratuak

Ekintza bateratuak programatzea eta burutzea izango da koordinakundearen eginkizunetako bat; ez dugu hemen erakunderen batek antolatuta eta besteek euskarritzen eta laguntzen dutena adierazi nahi, hainbat erakundek elkartuta programatzen, antolatzen eta burutzen dutena baizik.

Eragin politiko bateratua

Mugimenduak gauza izan behar du alderdi politikoei baldintzak jartzeko —eta betetzen ez dituenari botoa ukatzeko kanpaina egiteko, adibidez—. Dena dela, euskararen aldeko mugimenduak ez du azpiko indar faktikoren bat izan behar; oso gardena eta agerikoa baizik, herritarren partaidetza per-tsonalean eta sozialean oinarrituko dena, eta herritarrengan era-

gingo duena, alderdi politiko eta erakunde publikoetan baino lehenago.
Errebindikazioak

Erakunde publikoen eta sozialen aurrean euskarari buruzko hainbat errebindikazio indarrez ipintzeko egokia izan daiteke guztien koordinakundea. Hemen euskararen gizarte-mugimendu osoarentzat eta talde, elkarte eta erakunde herritar guztientzat funtsezkoa den bat azpimarratu nahi dugu: Gizarte-mugimendua eta hori gorpuzten duten talde, elkarte eta erakundeak beharrezkoak eta funtsezkoak direla onartzen badugu, euskara berreskurapen prozesuan eta horren plangintza aurrera eramateko, beharrezkoa da horiek beren funtzionamendu normalerako ere laguntza instituzionalak edukitzea, eta ez bakarrik ekintza konkretuetarako laguntza puntualak; horien azpiegitura da kontuan hartu behar dutena erakunde publikoek.

KOORDINAKUNDEA BIDERATZEN

Badirudi, hasteko, era dinamikoz hartu behar dela euskalgintzako gizarte-mugimenduaren koordinazio- eta baterakuntza-prozesua: etapak erre gabe, baina azken helburua garbi edukita. Badirudi gainera, talde, elkarte eta erakunde sozialen arteko nolabaiteko koordinakunde iraunkorra eratzeko garaia dela, unean uneko lankidetzeta-moduak gaindituz. Badirudi, azkenik, horrelako prozesuak beharrezkoa duela aldi bakoitzean lehentasuna duen sailak -eta sail horretako erakunde nagusiak- koordinaziorako motorearena egitea.

Koordinakunde-dimentsioak

Euskararen aldeko gizarte-mugimenduak hizkuntz elkarteak sortzera, zabaltzera eta osotzera jo behar du. Horretarako tresna dira erakunde herritarrak eta horietan oinarrituriko gizarte-mugimendua bera.

Hizkuntz elkarteak (komunitatea) eta erakunde herritar koordinatuak, biak dira funtsezkoak eta osagarriak euskararen aldeko gizarte-mugimenduaren antolamendurako. Honi begira lau antolamendu-dimentsio edo bereiziko ditugu:

1. **Taldeak eta elkarteak.** Oinarrian daude eremu kultural eta sozial ezberdinetako eta herrietako edo auzoetako taldeak edo elkarteak. Azken urteotan, eremu sozial eta kulturaletako talde eta elkarte espezifikoek (unibertsitate eta eskoletako EKTak, enpresetako, kutxetako eta bankuetako euskara-taldeak, zerbitzu sozialetako euskara-tal-

*«Herri mailan lanean
ari diren elkarteak
sortzearen,
zabaltzearen eta
koordinatzearen aldeko
prozesua bultzatu eta
lagundu behar du,
horien lanaren
zerbitzurako
informazio eta aholku
teknikoa bideratuz»*

*«Erakunde publikoen
eta sozialen aurrean
euskarari buruzko
hainbat errebindikazio
indarrez ipintzeko
egokia izan daiteke
guztien
koordinakundea»*

deak, etab.), oro har, beren bizitasuna moteldu egin dutela dirudi; baina berriak ere sortu dira. Indarberitu beharko lirateke. Bestalde, hirietako, herrietako eta auzoetako elkarten fenomeno zabalten ari da. Gogoz bultzatzekoa da. Horiei dagokie, bakoitzari bere barrutian, bertako sektore edo maila ezberdinetako erakunde herritarren arteko koordinazioa egitea. Bestalde, elkarte horien arteko koordinakundea ere oso garrantzizkoa da, eskualdearen eremuan eta Euskal Herriaren zabaldean.

2. Kultur sailletako koordinakundea. Kultur sektore bakoitzeko erakunde ezberdinen arteko koordinakundea lortu beharrekoa da gizarte-mugimendu sektoreartekoa sortzeko, hizkuntzaren normalkuntzaren prozesuak eskatzen duen bezala. Horrelakoak badaude (irakas-kuntzan, alfabetatze-euskalduntzean, etab.); areagotu egin behar lirateke.

3. Maila nazionalako erakundeak. Euskararen berreskurapen osoari begira helburu eta jokabide espezifikoak dituzten erakunde nazionalak edo herrialde bakoitzekoak badaude: EHIE, AEK, EHE, UEU, Euskaldunon Egunkaria, UETS (Udaletako Euskara-Teknikarien Sarea), etab. Garrantzi handia dute horiek euskararen aldeko gizarte-mugimenduaren artikulazioan.

4. Koordinakunde orokorra. Talde, elkarte, erakunde eta mugimendu horien guztien koordinakunde ahal denik zabalena eta irekiena bilatu behar da, euskararen aldeko gizarte-mugimenduari nolabait gorpuztuz baterakoia emango diona, beraren aniztasun osoan.

Koordinakunde-formaren proposamen konkretua

Euskalgintzako talde, elkarte eta erakunde sozialen arteko koordinakundeak zein forma konkretu izan behar duen asmatzea denon egitekoa da, jakina. Hemen ez gara saileko koordinazioaren eta lurraldeko koordinazioaren formari buruz ari zuzenean, euskalgintzako talde, elkarte eta erakundeen arteko koordinakunde orokor eta nazionalari buruz baizik. Kontutan izanik, jakina, beste mailatako koordinazioak daudela horren oinarrian.

Euskalgintzako indar ezberdinen aldetik zenbait proposamen agertu izan da eta landu izan da azken urteotan. —Ez gara hemen horiek agertzen hasiko, egun hauetan hemen agertuko direlako—. EKBk bere forma burutu izan du azken hamabi urteotan; aipatua dugu, gainera, nola proposatu

zien, duela hiru urte, euskalgintzako sail eta maila ezberdinetako erakunde sozialei koordinakundea zabaltzea aurrera begira, eta *konfederakundea* eratzea

EKBren esperientziatik begiratuta, gauden egoeran egonik, goian aipaturiko prozesu dinamikoa eduki behar dugu kontuan, etapak erretzen ibili gabe. Aurrera-urrats gisa goian aipaturiko bosgarren maila proposatuko genuke une honetan, hau da: Elkarrekin zerbitzuak eta benetako lan-plan-gintza antolatze ko koordinakunde iraunkorra eratzea, horretarako beharrezkoak diren organoak antolatuz. Seigarren maila, konfederakundearen eta instituzionaltze iraunkorrarena gerorako utziko genuke, beraz.

EKBren ustez, euskalgintzako taldeek, elkarteek eta erakundeek, federazioek eta konfederazioek izan behar dute funtsean koordinakundeko partaideak. EKBk, bere aldetik, elkarte edo konfederazio gisa hartuko luke parte horrelako koordinakundeån.

Koordinakunderako egin beharreko urratsak

Goian aipaturiko hiruko jauzi kualitatiboa egin ahal izateko, urrats zehatzak egin beharko dira euskararen aldeko gizarte-mugimendua indartze-eta eratze-bidean, eta horien eta erakunde publikoen arteko harremanak zuzentzeko ahaleaginean. Hemen, hiru bakarrik aipatuko ditugu. Horien forma eta bestelako zehaztapenak lantzeko daude.

1. Euskalgintzako talde, elkarte eta erakunde herritarren arteko akordio zabala, euskararen berreskurapen osorako gizarte-mugimenduari, maila guztietakoari, benetako gorputza eta eraketa emateko
2. Euskararen aldeko gizarte-mugimenduak eraginda, bestelako erakunde eta indar sozialen, ekonomikoen, politikoen, etab.en arteko hitzarmen soziala, maila ezberdinetakoa, euskararen berreskurapen osoari eta erabilerari begirakoa
3. Erakunde publikoen eta euskalgintzako erakunde herritarren arteko elkarlanerako plataforma zabala, Administrazioaren hiru mailatan «*Euskararen Kontseilu Sozialaren*» forma hartuko lukeena.

«Badirudi, hasteko, era dinamikoz hartu behar dela euskalgintzako gizarte-mugimenduaren koordinazio eta baterakuntza-prozesua: etapak erre gabe, baina azken helburua garbi edukita»